



Astekaria



elgoi



Prebentzioaren bidetik



- ▶ MANIKURA
- ▶ DEPILAZIOA
- ▶ AURPEGI GARBIKETA
- ▶ SOLARIUM-A

- ▶ PORTZELANAZKO ATZAZALAK
- ▶ GORPUTZ MASAIA
- ▶ EZKONTZETARAKO MAKILAIA
- ▶ BETILE ETA BEKAINEN TINTE ETA PERMANENTEA



Errebal 18 esk.
Tel. 70 27 60
EIBAR

semana das letras galegas

LARUNBATA 11

14,00: Bazkideen bazkaria.
16,00: Chaves tiraldia.

IGANDEA 12

12,00: Futbito partidua.

OSTIRALA 17

19,00: Dantzaldia FABULA taldearekin.
22,30: Dantzaldia FABULA eta DUO PLAENTXIrekin.

LARUNBATA 18

10,30: Kalejira Esgoseko Jesta taldearekin.
11,00: Galiziako jakien dastaketa.
12,00: Dantza ekitaldia.

16,30: Haurrentzako jolasak.

18,00: Galiziako jakien dastaketa.

19,00: PASSARELA orkestaren ekitaldia.

22,30: PASSARELA orkesta eta PACO FORMOSO "El General".

IGANDEA 19

10,30: Meza.

11,30: Esgoseko gaita joleak eta Ourenseko dantzarien kalejira.

12,30: Esgoseko gaita joleak eta Ourenseko dantzarien


ekitaldia.

14,30: Bazkari ofiziala agintariekin.

17,00: Esgoseko gaita joleak eta



Migel ALTUNA institutua (BERGARA)




D ereduan
BAG



D ereduan
BTI



A ereduan
BTI



D ereduan
BTI

ERDI
MAILAKO
ZIKLOA

ADMINISTRAZIO
ETA GESTIO
LAGUNTZAILEA

A ereduan

IEE 1. zikloa
BBB 2.
maila

AURREMATRIKULA: Maiatzaren 2tik 17ra

MATRIKULA: Uztailaren 1etik 8ra

Ordutegia: 9etatik 1etara

Migel Altuna Institutua
Ibargarai, 1 (BERGARA)
Tel. 76 38 40 - 76 29 41

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.
ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi.
KAZETARIK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.
PUBLIZITATEA:
Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:
Maite Rementeria.
ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldegi, Xabier
Ansola, Nekane Aranburu,
Pello Arrieta, Juan Mari
Elustondo, Ina Garagarza,
Ane Goikoetxea, Amaia
Gorostiza, Juanito
Gorostiza, Maite Iriondo,
Edu Iriondo, Alberto
Iriondo, KOKOE, Imanol
Larrañaga, Javi León, Juan
Mari Mendizabal, Milagros
Oiarzabal, Benantzio
Otaegi, Aitor Zabaleta,
Julen Zabaleta, Deñe
Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:


Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
TIRADA: 3.600 ale
LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92
ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Burdin zatia

Azkoitiko bide berrira hobeto sartzeko orain hain modan dauden errotonda horietakoa egin zuten San Antolinen. Bidegurutzearen erdian burdin-zezko eskultura handi bat jartzeko burutazioa eduki zuen norbaitek. Han-txe dago monumentua, tente-tente, ko-txeen joan-etorri etengabearen testigu.

Denbora darama hor ipinita, baina, hala ere, bertatik pasatzen naizen bakoitzean harrিতa begiratzen diot burdin zati galantari.

Zer esan nahiko duen pentsatzen dut, artistaren intentzioa zein izan den asmatzen saiatzen naiz. Alperrikako lana. Arte kontuetan ez naiz oso jakituna eta ziurrenik horregatik ez diot zen-tzurik topatzen eskulturari.

Bere itxuraz berba egiteko, ostera, ez dut uste asko jakin behar denik. Gustua librea da eta danok daukagu aukera artistak gure begien aurrean jarri duena estetika aldetik bakarrik juzgatzeko, bestelako sakontasunetan sartu gabe. Kasu honetan ez daukat dudarik: San Antolinen errotondako zer hori gero eta zatarra goa iruditzen zait, burdina ugartzen ari da eta gainera pintada zuri bat egin diote beheko aldean, oraindik gehiago kaskartuz.

Eskultura ipintzea pentsatu zutenen helburua ingurua dotoretzea izango zen seguruenik. Hobe burua nekatu izan ez

balute. Burdinaren ordezkari edo zuhaitz eder batzuk landatu izan balituzte errotonda askoz txukunagoa geratuko zen.


Horrenbeste zementu eta kotxe artean eskertuko genuke detaile fina.

Baina, zoritxarrez, modu honetako txapuzetara nahiko ohituta gaude herrian. Oraingoan ere atsekabez eta tristuraz onartu beharko dugu gauza hauetan agintzen dutenek egindakoa. Bidegurutze eta gainontzeko injinerutza lan zainduak ikusteko Iparraldera joan beharko gara, hemen obrak eta estetika ez baitira momentuz ondo konpontzen. Hala ere, ez uste artelana nolana hiko denik. Prezioa behintzat ez dauka makala. Diputazioak 15 milioi pta. inguru ordaindu zituen eskulturarengatik. Artearen onerako izan dadila. Horrelako lanetan dirua eta denbora eman beharrean, eskertzekoa izango li-zateke agintarien intentzio artistikoak beste gauza batzuetara zuzenduta egongo balira. Herriaren erdian, urrutira joan gabe, toki berdeak behar ditugu umeen jolasetarako, pasiatu edo trankil egoteko. Premiazko beharra dela esango nuke, borondatea edukiz gero ahalegin handirik gabe bete daitekeena.

Horixe izango litzateke herriaren onerako egin dezaketen artelanik bikain eta probetxuzkoena.

Aitor Zabaleta

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

- "Ba al dauka Udalak Eliza osteko parkeko komunak zabatzeko asmorik?"

Alkateak esan digunaren arabera, lehen ere zabaldu eta astebetara harriekin txiki-txiki eginda laga zituzten eta itxi egin behar izan zituzten. Harrez geroztik ez da berriz zabaltzeko eskaririk egon, izan ere apenas jenderik ibiltzen den parke horretan. Gaia horrela dago.



KEXAK

- **Pista beltzean** pasiaran ibiltzen den emakume batek honako kexa hau plazaratu nahi du: "Pista beltza- ren erdi aldera zulo bat dago. Lehengo batean pasiaran zebilen emakume batek hanka sartu zuen zuloan eta erori egin zen. Pasiaran jende asko ibiltzen denez, ezer larriagorik gertatu aurretik, dagokionari zuloak konpontzea eskatu nahi diot".

- Haur batzuk etorri dira **BARRE-Nera** kexa bat plazaratzeko. **Haur Tanborradan** parte hartzeko intentzioarekin Musikeskolara joan ziren (aurten Musikeskolak antolatzen du Tanborrada) eta eurek ezin dutela jo esan zieten. Musikeskolan matrikulatuta dauden haurrek bakarrik parte har dezaketela erantzun omen zieten. Erabaki hau ez zaienez bat ere egokia iruditzen, euren kexa kanporatu nahi dute.

ESKUTITZAK

Beherapenak Sabin Etxean

- Bai, lagun, beherapenak heldu dira. Udaberriko saldoak.

- Non? Corte Inglesean?

- Ez, lagun. Sabin Etxean eta horren ondorioz Jelkideek agintzen duten hiru probintzietan. Sabinok burua altxatuko balu!

- Eta, zer lortu dute? Euskal Herriaren subiranotasuna, euskara indartzea, euskal preso politikoak (intsumituak barne) etxeratzea, Estatuari kupoa ez ordaintzea, lana, PAKEA, lurralde batasuna, Intxaurrondo ixtea, GALEkoak gartzelaratzeta agian?

- Ez, lagun. Estatutua betetzeko konpromezua (ez eperik ezta formularik ere garatzeko) eta horrez aparte DIRUA, DIRUA eta DIRUA.

- Baina Estatutua ez al da lege organikoa, derrigorrez bete behar dena?

- Bai horixe. Jadanik badira 16 urte eta oraindik bete gabe dago. Hauekin Independentzia XXX. mendean izango dugu.

- Ez al zuen esan Arzalluzek, horiek Francoren seme politikoak zirela?

- Hori baino gehiago, gure Euskara mesprezatzen dutenak, presoak Euskal Herrira ekartzearen aurka daudenak, GALindo, ABC goraitpatzen dutenak. Ba al dakizu zer esan duen Mayor Oreja

Barne Ministroak? Ez zutela PNV-ren botorik behar, baina horrela abertzaleekin batasuna lortzeko asmoak kentzen dizkietela. Eta noski, jelkideak pozik. Espainian eroso bizi behar dugu, PNV España-ko "Demokraziaren zutabe", Europa bla, bla, bla... eta DIRUA, DIRUA eta DIRUA.

- Ba al dakizu zer esaten dizudan? Batzokietan plaka berriak jarri beharko lituzketela. "TODO POR LA PATRIA, TODO POR LA PASTA"

- Eta hori ez bagaituzte "sevilanako" ikastera behartzen. Dagoeneko laister zezen plaza dugu Donostian. Viva España y OLE.

- Baina zu lasai lagun. CELTAS CORTOS taldeak esaten duen bezala, "Trankil majete zure silloian".

- Ah! Amaitzeko, "anonimoak" bidaltzen dituenari, datorren anonimoa, mesedez, euskaraz bidali, zuk diozun bezala hain abertzale bazara behintzat.

Kurutz Castrillejo


OKERRAK ZUZENTZEN

150. zenbakiko BARRE-Nen "Zenbat buru" atalean agertzen zen idatzian oker bat zegoen. "La música es el arte de combinar los sonidos y las notas" esaten zuen lekuan beste hau beharko luke jarri: "La música es el arte de combinar los sonidos y el ritmo".

Egilearen oharra

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





argazkirako jarri zirenetik.

au emakume hauek ager-tzen diren erretratua **Maria Jesus Igartuak** laga digu. Zein urtetakoa den zehatz ez dakigu, baina bere ustez 60 bat urte igaro dira lau emakume elgoibartar hauek

Amantalak jantzita eta kaleko espaloian aulki batean eserita daudenen izen-abizenak dira jarraian ager-tzen direnak:

Ezkerretik hasita: **Felicitas Uribeetxeberria** (†), **Angela Gurrutxaga** (†), **Maxima Izeta** (†) eta **Gregoria Gurrutxaga** (†), azken hau eta bigarrena, ahizpak.

2. txanda

Grafologia ikastaroa

- Maiatzak 16, 23 eta 30
- Arratsaldeko 7etatik 9etara
- Prezioa: 1.000 pta.

Oso plaza gutxi geratzen dira!!

ANTOLATZAILEA:
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea



LAGUNTZAILEAK:
Elgoibarko Udala
Forua Aldundia



Gabiola GESTORIA

Apirilaren 1ean, Errenta Aitorpena garaia hasten da.
Guk lagunduko dizugu **LEHEN BAIT LEHEN EGITEN.**

San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 74 07 97 - ELGOIBAR



Baserriko
haragietan
berezia



Harategi Urdaitegia

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

Drogekin bizitzen jakin behar

Drogak betidanik existitu izan dira, garai eta toki guztietan. Halere, arrazoi ezberdinak medio, droga batzuk beste batzuk baino arazo gehiago sortu izan dute. Esaterako alkohola, droga izanik ere, legalizatua dago eta onarpen handia du gure gizartean, beste toki batzutan opioak duen bezala. Hachis-a, anfetamina eta, batez ere, heroina sartzean hasi ziren kezka eta arazoak. Dibertsifikazio handia dago egun, drogak desagertu ez, ugaritu egiten dira. Desberdinak azaltzen dira merkatuan. Guztiontzat ezagunak dira diseinuzko "pilulak". Batzuekin eta besteekin bizitzen jakitean dago erronka.



1977 urte inguruan sartu zen heroina Elgoibarren. Heroina kontsumitzen hasteaz bat, gazteak "pasotismo" batean murgiltzen joan ziren. Heroinarekin batera hainbat talde "marginal" sortu ziren. Hauek lokal baten beharra ikusi zuten, kontzertuak, hitzaldiak antolatzen zituzten eta, poliki-poliki beste gazte talde batzuegandik urruntzen joan eta Udaletxearekin gatazkak hasi ziren, herrian tentsio handiko momentuak sortuz.

DEEtik Errotatxora

1985. urtean gertatu zen HIESaren eraginez lehenengo heriotza. Arazoak ugaritu egin ziren eta drogen aurkako lehen elkarteak sortu zen 1983an, Drogak Eragindako Elkartea. Poliki-poliki, DEE, hezitzaile, Gaztetxe, Zazpiki irratia, zinegotzi eta beste hainbaten elkarlanari esker, 1987an drogo-

menpekotasunen prebentziorako lehen Udal Komisioa sortu zen. 1988an, drogekin loturiko bi heriotza gertatu ziren herrian ETAREN eskutik. Arrazoi ezberdinegatik Komisioa desagertu egin zen baina gero eta gehiago zen HIESak jota hiltzen zen jendea, drogen kontsumoa eta trafikoa gero eta handiagoa zen... eta, 1990. urtean Errotatxo jaio zen, prebentzioaren alde lan egiteko asmoz. Urte berean sortu zen, baita ere, Udaletxeko Drogomenpekotasunerako Prebentzio saila.

Errotatxok hiru helburu nagusi ditu: herritarren sentsibilizazioa, instituzioetara zuzendutako ekintzak eta afektatu eta senitartekoei zuzendutako ekintzak egitea, besteak beste, Prebentzio Astea edo HIESaren Prebentzio Astea. Orain arte Udalarekin harremanak ez dira oso onak izan eta

elkarlana gauza puntualetan baino ez da gauzatu. Beraien hitzetan, "gu irekita gaude eta beraien erantzunaren zain. Gu bezalako kolektibo bat izatea herrian oso garrantzitsua da, gure lana inportantea da eta kontuan izan behar ko gintuzkete".

Elkarlanari buruz Kati Pons, Drogomenpekotasunen Prebentziorako Saileko teknikariak esan digunez, "zoragarria litzateke, mahai batean eseri eta zer egin daitekeen eztabaidatzea. Guk eskola mundua lantzen dugu, Errotatxok maila soziala. Bide ezberdinetik goaz, baina helburu berdina daukagu. Oso garrantzitsua da Errotatxo egotea". Prebentzioa, kontsumoa agertu aurretik eman beharreko pausoei deitzen zaio. Horretarako, Udalak, gazteekin harremanetan dagoen jendearekin egiten du lan, "gazteei dena

DROGAK ETA HAUEN ONDORIOAK EPE LUZERA			
<p>Heroina</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Anorexia ■ Inpotentzia ■ Idorria ■ Amenorea ■ Infekzio konplikazioak: hepatitis, tromboflebitisa eta endokarditisia ■ HIESa 	<p>Kokaina</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ REM loaren gutxitzea ■ Urduritasuna ■ Eszitazioa ■ Kontrolatu ezina ■ Paranoia ■ Psikosia ■ Bihotz gaixotasunak ■ Infarto <p>Lehen 3 eta 5 urteetan ez dira sintomak nabaritzen eta horrek egiten du guztiz arriskutsua. Adikzio psikologiko gaitza.</p>	<p>Anfetaminak</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Suminkortasuna ■ Paranoia ■ Psikosia ■ Adimena galtzea ■ Anorexia ■ Gibelego gaixotasunak 	<p>Marihuana (cannabis)</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Errendimenduaren gutxitzea ■ Apatia ■ Psikosia ■ Trastorno sexualak ■ Arnasketa gaixotasunak ■ Biriketako minbizia ■ Trastorno encefalikoak <p>Beste droga batzuekin nahasten da: alkoholarekin, anfetaminekin etab. Beste drogei bidea irekitzen die.</p>
<p>Hipnotikoak eta barbiturikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Antsietatea ■ Egonezin emozionala ■ Intelektuaren gutxitzea ■ Haserrea ■ Anorexia ■ Erupzioak ■ Gibelego gaixotasunak... ■ Adikzioa sor dezake 			<p>Alkohola</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Urduritasuna ■ Enzefalopatiak ■ Psikosiak ■ Eromena ■ Gibel, urdai, pankreas edo bihotzeko gaixotasunak ■ Polioneuritisia. ■ Alkoholismo kronikoa. <p>Gazten artean beste drogetarako bidea zabaltzen dezake.</p>
			<p>Tabakoa</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Arnasketa gaixotasunak ■ Kardiobaskularrak eta goi aldeko liseri bideetakoak. ■ Tabakismo kronikoa

ezagutarazi eta drogen eskaintzaren aurrean nola jokatu behar duten erakutsi behar zaie”.

Drogen dibertsifikazioa

Gaur egun drogen kontsumoa gero eta ugariagoa da Elgoibarren: “kanutoak”, anfetaminak (speed-a), aluzinogenoak (tripiak edo LSD), alkohola, heroina, cocaina, pilulak... Eta gazteak, 13 urte dituztenetik hasien dira kontsumitzen. 1992an Siadepok egin zuen inkesta baten arabera, gazteen %60ak noiz edo noiz probatu izan du “porroa” eta horietatik %14ak sarri kontsumitzen du. Porroarekin batera, anfetaminak (% 14,7) eta alkohola dira gaur egungo gazteek gehien kontsumitzen dutena, batez ere astebukaeratan. Cocaina %9,1ak aitortzen du behin edo behin probatu izan duela. Heroina badirudi nahiko estankatua dagoela, HIESak eta berez droga horrek duen prestigio txarrak eragin handia izan dute. Beharbada gutxiagok injektatzen du baina askok erre edo esnifatu egiten dute. Kontsumitzeko era aldatu egin da.

“Pilulak”

Alkohola hutsik kontsumitzeaz gain, beste droga batzuekin lotzen da, polikontsumoa deitzen dena emanaz. Asteaz gaur gazteek alkoholik kontsumitzen ez duten arren, astebukaera-



Diseinuzkoak dira merkatuan dauden droga berriak. Hachis-a berriz aspalditik kontsumitzen da.

tan %38,7ak edaten duela aitortzen du, %18,2ak gehiegi edaten du eta %10,3a alkoholikoa izan daiteke. Hauek gazteei buruzko datuak dira baina kontuan izan behar da helduen artean ere kontsumoa oso altua dela.

Azken boladan diseinuzko drogak sartu dira, “pilulak”, “Extasiak”. Jende askok kontsumitzen ditu, “zer diren jakin gabe”. Azken finean, garai batean heroinarekin gertatu bezala,

gaur egun pilularekin antzeko zerbait gertatzen ari da, epe luzean izan ditzaiken ondorioak ezezagunak dira.

Trafikoa

Drogen eskaintza zabala da gaur egun. Nahi duenak eskura ditu, badaki nora jo nahi duena lortzeko. Legalak kontsumitzeko tabernetara joan besterik ez dute eta trafiko ilegala kalean dago, trapitxeo modura. Sarri, trafikantzaile handiak gabe, “ganbelu” txikiak izaten dira, aberastu gabe, poltsikorako diru dexente lortzen dutenak. Hauek, Eibar edo Bilbora jotzen dute, han behar beste erosi eta gero, herrian banatzen dute. Dena dela, kontsumitzaileen eta “ganbelu” txiki horien atzean, trafikante handiak daude, interes izkutu asko eta, nola edo hala, aberasten ari den jendea.

Drogak beti egon dira eta egoten jarraituko dute. Kontua, horiekin bizitzeko jakitea da, abusatu gabe. Normalizazioarentz jo behar da. Norberak jakin behar du kontrolatzen kontsumoa. Erronka hor dago, prebentzioaren bidez, drogekin bizitzeko jakitera iristea da kontua. Alternatiba bakarra ez dadila droga izan, larunbata iritsi eta taberna zuloan ibiltzea.

Haurren Lehen Jaunartzea dela eta...

Nire Lehen Jaunartzea etorri zait burura. Zortzi edo bederatzi urte nituen maiatzaren igande goiz euritsu hartan Azkoitiko parrokira joateko nire amamaren etxetik irten nintzenean. Txuriz jantzita, nere lehenengo pentsamenduak ez ziren oso elizkoiak. Nola egin jantzi disdiratsu hura ez zikintzeko? Saltoka iritsi ginen eliz-atarira, oinez noski. Han, hainbeste lagun gure bizitzako egun zoragarriena hasteko zorian!

Garai hartan oso zahartuta zegoen ez dakit nongo gotzainak burutu zuen gure elizkizuna. Ez naiz ezertaz gogoratzen. Aittite hura guri mintza eta ni denbora guztia lagunei begira, atzera begira eta hainbeste gerra ematen zidan tunika hari so.

Une berezi bat gogoratzen dut; ogi txurixe, Jaunaren gorputza nere gorputzarekin bat egiten zenean. Zerbait berezia somatu nuen. Alde batetik helduago ikusten nuen nere burua eta bestetik, han dastatu nuen lehen aldiz nere bizitzan zehar hain garrantzitsua izango zen Jesusen elkarrizketa edo otoitza.

Gero, ardo goxoa eta pastak sakristian; eta kalean eguzkia, nere lehenengo erlojua, musuak, argazki txotxoloak... Geroko kontuak edozeinek daki... bazkaria, opari batzuk (asko ez), eta ni jantzi horrekin borrokan, (elizan jantziaren barrena askatu eta jatetxeko txirristan zikindu nuen).

“Nere bizitzako egunik zoragarriena”, hauxe idatzi nuen egun har-

tan opari berria neukan liburu txuri-nola ez- batean. “Aizak, ez dek hainbesterako”, zioen nere barruko ahotsak.

Baina, beno, ez zen hasiera txarra. Eskerrak egun hori baino zorionsuagoak ugari gozatu ditudan. Nire esperientzia-adierazpen honekin esan nahi dudana zera besterik ez da: zer idatziko nuke nik Jaunartzeko liburu horretan jantzi txurixe, opari, musu, erloju eta jatetxeko bazkaria ospatu izango ez banitu?

Askotan helduei hau entzuten zaie: “montajea dela badakigu, baina zer egingo dugu! nola kendu ilusio hori gure haurrei, azkenean

danok erortzen gera eta...” Ba, inor ez dago arrisku horretan erortzera beharturik. Hemen dituzue Parrokiak zorobiloa askatu edo argitzeko eskaintzen dizkizuen kriterioak:

1- Lehen Jaunartzea, funtsean, igandeko meza edo Eukaristia bat da. Parrokiak kristau guztientzat ospatzen duen meza bat. Hori bai, egun horretan, igande normaletan baino partehartze handiagoa dute lehen aldiz Jauna hartzen duten haurrek eta hauen familiek.

2- Lehen Jaunartzea dela eta Kristau elkarteari dagokiona hauxe da: haurren eta hauen gurasoen fede heziketa zaintzea eta sendotzea; eta aldi berean, bai Lehen Eukaristia eta bai Lehen Adiskidetze sakramentua era egokian eta hezigarrian egiten laguntzea.

3- Gainerako gauzak eta ospakizunak: opariak, bazkaria etab. ez ditu Parrokiak erabakitzen. Gauza horiei buruz Parrokiak duen pentsakera eta sentsibilitatea hau da: kaleko ospakizun hauek ere ahal den erarik xumeanean eta hezigarriean egin daitezela.

Lehen Eukaristia hasiera bat da, ez helmuga, nahiz eta guraso batzuentzat noizbehinkako Eukaristia edo azken Jaunartzea izan. Hor dago gakoa. Ez ditzagun erabili kontsumismoaren kriterioak, imajinario eta xehetasuneko kriterioak baizik. Ausartu zaitezte gauzak onbidertzen, bestela, nire Lehen Jaunartzeko liburu hartan idatzita daukadana, zuek ere idatziko duzue zuen haurren bizitzaren liburu txurian.



XABIER GÓMEZ

**ZURE HAURRARENTZAKO
PRODUKTUEN BANATZAILEA
EUSKAL HERRIAN:**
- Kotxeak eta sehaskak

BAMBINO

Estazio kalea 3
☎ 10 69 93
EIBAR

DURANGO: ☎ 681 14 83 / 620 35 72 - BILBO: ☎ 444 71 04

HISPANIA  **ZURICH**

J. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08

Zer da zuretzat Lehen Jaunartzea?



DESIRE LOPEZ
8 urte

Familiarekin eta lagunekin egoteko egun polit bat, eta opariak jasotzeko. Elizara joango naiz eta papolito bat irakurriko dut eta ateratzen garenean bazkari eder bat izango dugu.



MIKEL SASTRE
9 urte, ikaslea

Jesusen gorputza hartzia. Ilusioa eitzen dia Jauna hartziak baina erregaluak ere ondo daude. Bazkarixa eukiko dogu eta 30 juntauko gera.



LEIRE AGEA
8 urte, ikaslea

Ez dakit nola esan. Ilusioa daukat familia ikusiko dudalako. Habitoa jantziko dut eta elizara joango naiz. Jauna hartuko det eta gero jatetxe batera joango gara.



NEREA GIL
9 urte, ikaslea

Jesusen gorputza hartzia da eta haundixaua sentitzen naiz, inportantiaua, nagusixak eitzen daben bezela. Nere familixa guztixa etorriko da, eta, bazkaltzera jungo gera.



JON IRIONDO
9 urte, ikaslea

Jesus bataiatu zuten eguna da, hori da Jaunartzea. Egun alaia izango da gauza asko oparituko didatelako: erlojua, jolasak... Inportantea da, ze lenengo aldiz da.



INAKI ONAINDIA
8 urte, ikaslea

Amak erositako erropak jantzi eta taberna batera jungo gera bazkaltzera. Mezetara jungo naiz eta apaizak esaten dabana entzun. Ez dakit oso ondo zer dan jaunartzia.

Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

**KAROBI
PUB**

Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37

BERDIN, S. A.

MATERIAL ELEKTRONIKO
ETA INFORMATIKO
BANATZAILEA

OLASO INDUSTRIALDEA
Olasope kalea, 3
Tel. (943) 74 12 00
Faxa: (943) 74 30 07
ELGOIBAR

■ Labeko esmalte ikastaroa Egur-en

Egur Arte Tailerrak labeko esmalte ikastaroa antolatu du hilaren 13tik 31ra bitartean. Esmaltea tenperatu altuan egosi ondoren, margotu eta beste zenbait teknikarekin apaintzeko teknikak ikasteko aukera izango da. Klaseak arratsaldeko 5etatik 7ak arte izango dira. Izena emateko Egurretik pasatu arratsaldeko 6etatik aurrera.

■ Almandoz-era txangoa jubilatuek antolatuta

Jubilatuen Etxeak Nafarroako Almandoz herrira txangoa antolatu du maiatzaren 22rako. Irteera goizeko 8,15etan izango Plaza Handitik Hondarribi aldera. Señorío de Bertiz bisitatu ondoren Almandoz-en bazkalduko dute eta arratsaldea Donostian edo Mamut-en igaroko dute. Bidaiaren prezioa 3.000 pta.koa da.




Errotatxoren Prebentzio Astea zehar antolatutako hitzaldi, mahainguru eta topaketan herritarren partaidetza benetan nabarmena izan da. Diseinuzko drogak, narkotrafikoa eta alkoholaren arazoa nahi izan du ikutzea aurtien Errotatxok. Aipagarria da joan den ostiraleko rafi-rafearan Herriko Antzokia jendez lepo zegoela esatea, gazteez batez ere. Era berean, larunbat goizean, herritar ugari urreratu zen Plaza Handira, eguerdi aldera batez ere, herriko taldeen jarduna ikusi eta kasu batzuetan, hainbat ekintzatan parte hartzeko. Ordubatean, ehundaka lagunek manifestazioan parte hartu zuen "Bizirik Bizi" lemapean eta Prebentzio Astea bukatzeko, antzerkia izan zen gauean Madalako parkean.

Nekazalturismo enpresak sortzeko ikastaroa

EAeko Mendi Nekazaritzako Elkarteek, DEBEMENen bidez, programa berezi bat jarri dute martxan. Emakumea lan munduan sartzeko asmoz, Europar Ondasun Sozialak Now ekimena bultzatu du. Patxi Aldasoro, Tolosaldeko Mendi Nekazaritzako gerenteak eta Asier Albizuk, Deba Beheko Mendi Nekazaritzako gerenteak prentsaurrekoan azaldu zuten, bost bazkide daude aipatu proiektuaren barruan: frantsesak, Greziako bi talde, italiarrak eta euskaldunak.

Emakume baserritarrei zuzendutako ikastaro honetan, metodo pedagogiko berri bat erabiliko da, edozein negozio martxan jarri aurretik aplikatu daitekeena. Jolasen bidez, 12 emakumek, lau taldetan banatuak, nekazalturismo enpresa egiteko ibilbideari buruzko pausoak ikasiko dituzte: nekazal turismoaren ikuspegi oso eta koherentea bereganatuz, proiektua eraiki eta martxan



jartzeko zein pauso eman behar den... Horrela, nekazal turismoari buruzko informazio bila dabilzanek, proiektua izan baina nola jokatuz ez dakitenek edo ugaritu, hobetu nahi dutenek, produktua osatu nahi dutenek, hasi berriak direnek ikastaro honetan hainbat pauso garrantzitsu ikasiko dituzte. 20 orduko ikastaroa, maiatzaren 29an hasiko da eta

Elgoibarren bertan izango da. Matrikula 5.000 pta.koa da eta izena emateko DEBEMENera deitu behar da maiatzaren 24a baino lehen, 744067 telefono zenbakira. Era berean, epe luzera, DEBEMENek Internet-en sartzeko asmoa du, beste gauza batzuen artean, horren bidez, mundu guztitik nekazal txeeetan erretserbak egiteko asmoz.


Lanbide Heziketari buruzko Jardunaldi Europarrak Elgoibarko Herri Institutuan

Inaxio Oliveri, Eusko Jaurleri-tzako Hezkuntza Sailburuak parte hartu zuen joan den astelehenean Lanbide Heziketari buruzko Europar Jardunaldien inaugurazio ekitaldian. Elgoibarko Lanbide Heziketako Institutuak antolatutako Europar Jardunaldi hauen lehen saioan Institutuko arduradunak, alkatea eta Alemaniako ordezkariak Jardunaldien aurkezpena egiteaz arduratu ziren, Oliveri Sailburuarekin batera.

Hil honen 6tik 17ra arte luzatuko diren Europar Jardunaldietan Holanda, Alemania, Grezia eta Elgoibarko Lanbide Heziketako ikastetxeek hartuko dute parte. Lau herrialde hauen arteko elkartruke egitasmo baten barruan kokatzen dira Jardunaldi hauek. Asmoa herrialde bakoitzeko Lanbide Heziketa sistema aztertu eta bakoitzaren berezitasunak ezagutzeko da, bide batez, ikastetxeen arteko harremanak estutu eta elkarlanerako urratsak ezartzeko. Lau lantaldetan banatuta, talde bakoitzak gai jakin bat landuko

du. Lehenak multimedien arloa aztertuko du (sare lokalak). Bigarren batek “Emakume eta Gazte eskolagabetuen enplegu alternatibak” landuko ditu eta hirugarrenak eta laugarrenak “Etengabeko Formazioa” eta “Hezkuntza Sistemaren barruan Merkataritza eta Turismoa”.

Bi astez luzatuko den egonaldian ez dute aspertzeko astirik izango erbesteko bisitariak. Igaro berri den astean Danobat Kooperatiba, Lastur ingurua eta gure baserriak bisitatu eta hainbat hitzaldi eta lan saiotan parte hartzeko aukera izan dute: ELAko eta ADEGIko ordezkariekin hizketaldia, Eskoriatzako Magisteritza Eskola ere ezagutu dute, Gipuzkoako Merkataritza Ganbarara joan dira, Iza-



rraitz Bizirik proiektuaren berri ere eman diete etab. Datozen egunotan INEM eta Emakunde erakundeak ezagutu eta hainbat ekintza kultural burutuko dituzte.

■ Naturopatiari buruzko hitzaldiak

Kemen belardendak antolatuta, osasunaren ongizateari buruzko hitzaldiak izango dira datorren astean. Marisol Saez eta Eduardo Garcia naturopata eta iridiologoek gai ezberdinei buruz hitzegino dute: obesitatea, alergiak, dieta bat egin eta berriz ere pisua hartzeko zer egin eta abar. Saio bakoitzaren ondoren, Oihulari Clown antzerki taldekoa den Virginia Imazek “Klownklusionistak”, hitzaldian esandakoari buruzko laburpen txiki bat egingo du. Hitzaldiak hilaren 13 eta 14an izango dira, arratsaldeko 7,30etan Kultur Etxean.

■ Trenerako txartelen berritzea jubilatuentzat

Jubilatu guztiek bai eta %65etik gorako ezintasun fisiko edo psikikoa duten guztiek ere trenean doan ibiltzeko txartelak berritu ahal izango dituzte ekainaren 14ra arte. Eibarko tren geltokira zuzendu eta honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute: treneko txartel zaharra, N.A.N. orijinala eta honen fotokopia. Ezinduek, aipatutako agiriez gain, gaixotasunaren ziurtagiri orijinala eta honen fotokopia ere eraman beharko dute.

■ Jaialdia igerilekuan

Olaizaga kiroldegia OHoko 4., 5., 6., 7. eta 8. mailako ikasleentzako jaialdia antolatu du larunbaterako, hilak 11, kiroldegiko igerilekuan. Arratsaldeko 4,30etatik 5,30ak arte hurrek uretan hainbat jolas egiteko aukera izango dute. Kiroldegiko bazkide direnentzako prezioa 100 pta.koa da eta gainerakoentzat 200 pta.koa. Jolasak amaitzerakoan igerilekuan geratzeko aukera izango dute. Gainontzeko pertsonentzat igerilekua itxita egongo da larunbat arratsalde osoan.

■ Aste Antimilitarista antolatu dute Antimiliek

Elgoibarko Talde Antimilitaristak Aste Antimilitarista antolatu du maiatzaren 13tik 19ra bitartean kode penal berriaren aurkako jarrera plazaratu nahian. Kode penal honek zigor zibilak indartzen ditu, "intsumituak sozialki baztertzeko asmoz". Hori dela eta, hainbat ekintza antolatu dituzte. Hilaren 15ean, asteazkena, intsumisioa eta kode penal berriari buruz hitz egiteko mahaingurua egongo da Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Hizlari izango dira Iban Esnaola abokatu eta intsumitua, Lutxi Arregi intsumitu preso, sindikatu bateko kide bat eta udalerrri intsumitu bateko alkatea. Moderatzaile lanetan Anjel Ugarteburu Institutuko zuzendariak jardungo du eta Zazpikik zuzenean eskainiko du saioa. Ostegunean, hilak 16, pelikula proiektatuko da Herriko Antzokian, "El inglés que subió una colina pero bajó una montaña". Ostiralean, hilak 17, haurrentzako jolasak eta marrazki saioak antolatuko dituzte Plaza Handian arratsaldeko 5etatik 7etara bitartean. Ostiraleko gauerdiko 12etatik larunbat eguerdiko 12ak arte, Udaletxean entzerratuta egongo dira Antimilikoak. Zapatuan, hilak 18, kontzertua izango da Madalan. Arratsaldeko 7etan Bittor Aiapek abestuko du eta gaueko 11etan All Nighters taldearen txanda izango da.

35 milioi pta. behar ditu Elizak kanpandorra konpontzeko

Parrokiako obren batzordeak bigarren faseari ekiteko asmoa dauka. Kanpandorra barrutik eta kanpotik berrituko da bigarren aldi honetan: fatxada, kanpoko barandak garbitu eta sendotu, dorreko egurrezko eskilara barrokoa berritu, erlojuaren gelan termitek hondatutako soliboak berritu eta kanpaiak eta erlojua konpondu eta martxan jarri. Honen guztiaren kostua 45.921.238 pta.koa da batzordeak egindako aurrekontuaren arabera. Zenbateko honi aurre egiteko Parrokiak hitzarmen bat sinatu du Eusko Jaurlaritzarekin. Akordioari esker Jaurlaritzak 11 milioi t'erdi emango dio parro-

kiari, hau da, zenbatekoaren %25a gutxi gora-behera. Gainontzeko dirutza, 34.440.928 pta., maileguan emango dio Jaurlaritzak Elizari, urteko %5,5ko interesarekin, 13 urtetan ordaintzekotan. Ia 35 milioi hauek ordaintzeko etxez etxeko diru-eskea egingo da, iaz bezala. Aurreko kanpainan dirua eman zuten herritarrei, kontrako agindurik jaso ezean, hileroko kuota berrituko zaie. Laguntzak bi modutan bidera daitezke: hileroko parrokian egiten den kolekta berezian parte hartuz edota parrokiak herriko banketxe eta aurrezki kutxetan dituen kontu korrontean dirua sartuz.



Herri Eskolako 3. eta 4. mailako ikasleek bi eguneko mendi irteera egin zuten pasa den astean Karakate inguruko aterpetxe batera. Egunean zehar inguruko zuhaitz guztiak aztertu zituzten eta mendi-ibilaldiak egiteko parada izan zuten, besteak beste, Hirukurutzeta eta Pol-Pol. Haurrek ekintza guztietan parte hartu zuten eta beraien jarrera txalotzekoa izan zen Herri Eskolako arduradunen esanetan. Irteera polita izanenez, urtero antolatzeko asmoa dutela esan digute Herri Eskolakoek.


BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO - 23. GEHIGARRIA



ñatiko Sastarrain baratz-eskolara joan ziren Pilar ikastetxeko 7. mailakoak. Urtero bezala, baserri inguruko guztiak ikusi eta ikasi zituzten hiru egunetan zehar eta, horrez gain, irteera bat edo beste ere egin zuten. Ondo baino hobeto ibili omen ziren neska-mutil hauek eta jakinarazi digutenez, natura eta mendiekin bat egiteko gogoz itzuli ziren. Gainera, jende guztia animatu nahi dute gauza bera egitera. Animo, beraz!

Tristea



Mutiko bat txakurrarekin pasiatzen ari dela, galdetzen dio gizon batek:

- Zer-nolako txakurra da?
- Polizia txakurra.
- Ez du, ba, ematen.
- Noski, polizia sekretuarena da eta - erantzuten dio mutikoak.

Jakitunen eskutik

Toteltasuna

Toteltasuna, ahozko adierazpen arazo bat da. Erritmoari zein hitzegiteko jarioari eragiten dio eta oztopatu egiten du.

Batzuetan toteltasuna stressa agertzearekin bat sortzen da. Izan ere, urduritasunaren ondorioz, laringeko giharreek teink egiten dute eta horren ondorioa da hitzegiteko era berezi hori.

Beste batzuetan, eragozpen hau burmuinaren funtzionamendu txarrarengatik izaten da. Azken hau, halere, oso arraroa da.

Noiz agertzen da disfemia edo toteltasuna?

- **Bi urterekin** agertzen denean, toteltasun fisiologikoa deitzen zaio. Urte hauetan toteltasuna ematearen arrazoiak asko dira: umea oraindik ikasten ari denez, ez ditu organuak erabat hezita. Sendiaren eraginak ere badu zerikusirik, behar baino ahozkotasun heldua eta abiadura handiagokoa eskatzen baitzaio umeari. Azkenik, faktore genetikoa daude.

- **Lau urterekin** azaleraetzen denean, zientzilariek lehen mailako toteltasuna deitzen diote. Kasu honetan eragozpena larriegia ez bada, kasurik ez gitea gomendatzen da.

- **Sei urterekin** toteltasuna gauza serioagoa da. Diagnosi bat egin eta tratamendu programa bat jarraitu behar da.

Nolanahi ere, edozein adinetan tratamendu batean ikasitakoa erabiltzera ohitu behar da bizi-modu normala egiteko. Horretarako, honako pausok aholkatzen dira:

- Oso lasai hitzegitea, patxadaz.
- Ahozko egoerei aurre egin eta hitzegin, beldurra galtzen saiatu.
- Begirada mantentzea berba egiten ari den pertsonarekin.
- Hitzegiten duen bitartean, keinuekin laguntzea.
- Entonazio egokiaz mintzatzea.

Urrats hauek ganoraz jarraituz gero, pertsona totela jario etenaren eta etengabearen arteko aldeaz ohartuko da eta ezabatzen lagunduko dio.

Disfemia ezabatzeko erabiltzen diren teknikak asko dira. Alde batetik, ariketa logozinetikoak: mingaina, ezpainak, matel-hezurra eta masailak lantzeko. Lasaitzeko, arnasa hartzeko teknikak, erlajazio metodoak eta eritimo ariketak oso onak dira. Havez gain, badira beste teknika batzuk ere.



MONTSERRAT IRAOLAGOITIA
PSIKOLOGOA

Ze iritzi daukazudroga.....ri buruz?



"*Oro txarra da eta Noeren arkan amatu zituzten Garbeluak eta "Raya" deitzen den arraina.*"

VICTOR BELLON. 14 urte



"*Drogak hartzen badituzu, lehenengo nahastu egiten zaitu eta azkenean defentsak kendu egiten dizkizu eta hil egiten zara.*"

JOKIN ZUBIAURRE. 8 urte.



"*Nere witez jendea ez da drogatu behar. Hori gertatzen da guruek ez dutelako ezer egiten. Zure semearekin hitzegin!*"

PATRICIA MENOR. 12 urte



Dgplu Scej 9 wtvg

Galde debalde

- 1- Sekula asmatu izan al duzu ezer eskolara ez joatearren?
- 2- Goenkaleko zein pertsonaia izan nahi zenuke?
- 3- Zer egitea iruditzen zaizu munduko gauzarik zailena?
- 4- Zer eskatuko zenioke alkateari?
- 5- Gurasoekin jolasten al duzu?
- 6- Gustatzen zaizun hitz bat?
- 7- Beste zein tokitan jaiotzeko nahi zenuke?
- 8- Zer izan nahi duzu haundia zarenean?



Gwcf cmrg
Ncxct tq
14 wtvg

1. Ez, gustura juten naiz, matematikak ikastera.
2. Jose Mari, trankila dalako, ni bezela.
3. Ikasten badezu, dena egin daiteke.
4. Bizikletaz ibiltzeko bideak eixia.
5. Bai, palan.
6. "Bai", indarra dakalako.
7. Ondarrun, nere amona hangoa dalako.
8. Inbentoria, hegazkin txixiak asmatzeko.

1. Behin edo behin bai, gaixorik nagoela edo... Baina amak sekula ez dit sinistu.
2. Mertxe, asko gustatzen zaidalako nolako den, nola jazten den...
3. Asignatura guztietan bikain ateratzea.
4. Pistina irekiak jartzea.
5. Ez, nahiago dut lagunekin ateratzea.
6. Harrigarria.
7. Elgoibarren berriz ere.
8. Abokatua, dibortzioetan espezializatua.


Zer da... *zerua*.....?

JOANA ASTIGARRAGA 10 wtvg



"Jendea joaten den lekua da zerua. Goenkaleko Gina zeruan dago."

AINHOA YAZOUEZ 8 wtvg



"Zerua oso goian dagoen zerbait da eta pasatu egiten bazera oxigenorik ez dago."

HARITZ ARRIETA 11 wtvg



"Gure goian lainoz beterik egoten den leku urdina. Esaten dutenez, hildakoen arimak joaten diren lekua."

ITZIAR LEIARISTI 13 wtvg



"Mugagabeko lekua da. Bertatik mundu guztia ikus daitekeela diote eta batzuk noizbait joateko esperantza dute."

GORKA OTERO 7 wtvg



"Onak direnak zerura joaten dira. Hegoak dituzte, buru gainean aro bat daukate eta zuriz jantzita daude."

MIREIA GONZALEZ 13 wtvg



"Zure mutil edo neskaz pentsatzeko han goian dagoen atmosfera zoragarria."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da elgoibartar hau?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?




GORKA SANCHEZ
13 urte

Barsak Realari 2 eta 1 irabazi diola letra haunditan irakurri nahi nuke. Notizia ona izango litzateke, baita ere, txinarrak besteok bezala kontsideratuak izatea. Marjinatuak ez egotea.

MIREIA JAUREGI
6 urte

Azalian, letra haunditan mundu guztian gerrarik ez eta pakia dauka. Eta gero, argazki batian, ni eta Pirritx eta pailazo horiek agertuko ginake, behian irakurriko litzake, ni Super 1 en egon naizela.



3. Asmakizunak:

- Ama dut totela aita abeslari, jantzi zuria daramat eta bihotza hori
Zer da?.....
- Ipurdia bai, zangorik ez gorputza bai, besorik ez lepoa bai, bururik ez.
Zer da?.....
- Bi anaia dira bosna ume dituzte denbora guztian zintzilik daude.
Zer da?.....

4. Buka ezazu marrazkia.



ERANTZUNAK: 1. Javier Oñederra 2. Zein albiste irakurri nahi zenuke egunkarian? 3. Arraultzak, botika eta eskuak.

Sonia Riojano

Tximak

ileapaindegikoa



- **“Rapatuko” al zenuke ilea apostu bategatik?** ▶ Ez, inolaz ere.
- **Zein egoeratan jarriko zenuke peluka bat?** ▶ Edozein momentutan, asko gustatzen zaizkit.
- **Zer idatziko zenuke horman tinte beltzez?**
 - ▶ Pakea.
- **Zerk jartzen dizkizu ileak tente?**
 - ▶ Anbulantzia batek, berri txar batek...
- **Mingainean ilerik ba al duzu?**
 - ▶ Bai, nahikoa eta are gehiago negozio honetan.
- **Zer esaten dizu “skin head” hitzak?** ▶ Ezer onik ez.
- **Zein arrazoigatik “moztuko” zenuke mutil batekin?**
 - ▶ Arrazoi askogatik, adibidez, leiala ez izategatik.
- **Zein kolorez tintatuko zenuke bizitza?**
 - ▶ Urdinez, kolorerik gustukoena dut betidanik.
- **Noren ilea gustatuko litzaizuke moztea?**
 - ▶ Albako dukesarena, oso gaizki eramaten du eta.
- **Zenbat buru hainbat aburu.**
 - ▶ Barruan zerrautsik ez dagoen bitartean bai.
- **Zure nortasunaren zein alde behar du suabizantea?** ▶ Prontoak.
- **Eta laka?** ▶ Nahiko biguna naizela esaten didate.
- **Plantxak egitea ala plantxatzea?**
 - ▶ Plantxak egitea. Plantxatzea ez zait batere gustatzen.
- **Besteen ilean ibili ala zurean ibil daitezene nahiago?**
 - ▶ Besteen ilean ibiltzea.
- **Metxoiaren bat gordetzen al duzu?** ▶ Ez, baina gordeko nuke.
- **Pertsona bati lehenik begiratzen diozuna?**
 - ▶ Eskuetan asko fijatzen naiz.
- **Oinetatik bururainoko gizon bat?**
 - ▶ Francisco Rivera eta Richard Gere.
- **Astean zenbat aldiz garbitzen duzu ilea?** ▶ Normalean bi aldiz.
- **Hatzazalak zein koloretakoak?** ▶ Oso argiak.
- **Eta ezpainak?** ▶ Marroiak.

AMAIA GOROSTIZA

Hil honetan, denetik Elgoibarren

DOINUA:


Aita izena kanta beharrak

Hilabeteak Errotatxokin
hasera paregabea;
Bizirik Biziz, gailendu zena
izan zen bai umorea.
Baina ez dago pozez beteta
oraintxe gazte jendea:
bost urte luze joan direnez
ez dugula Gaztetxea,
Gazte Asanbladak antolatuta du
aldarrikapen astea. (Berriz)

Ikusten dugu kolektiboak
mugitzen ari direla.
Antimilien erakusketa
ikus zazute bestela,
hurrengo astean da berau eta
ea izaten dan itzela.
Trinitateak, hementxe datoz
urte orotan bezela.
Hilabete hau dudarik gabe
kargatua datorrela! (Berriz)



JON GARATE



Goki eRreformaK, s.l

DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK

FATXADAK ETA TEILATUAK

OBRAK OROKORREAN

Joseba Zabaleta:

"Mendaroko sukaldian ordenatoria erabiltzen dou"

18 urte zituela, UBI aprobatu ez eta ikasten jarraitzeko asmorik ez zuenez, Donostiako jatetxe batean aukera izan bezain pronto, bertara joan zen lanera.

Pintxe aritu zen soldadutza egiteko garaia iritsi zitzaion arte.

Madrilera joan zen, han ere jatetxe batean lan egin zuen, Bergarako Lasan, Elgoibarren Gorbean, Donostian Cookis-en eta berriz ere Madrilera. 32 urte ditu eta 1992tik Mendaroko ospitalean, sukaldeko arduraduna da.

- Umetan amonarekin ibiltzen omen zinen sukaldeko saltsan.

- Bai. Arrain zopia eixen erakutsi zian, tortilak, potajiak...

- Artetik ba al du zer-bait sukaldaritzak?


- Bai, sormen puntua badaka. Base bat erabiliz, gauza asko kanbixau leikez plater batian. Dana dala, azkenian toki gehixenetan gauza berdinak eixen dia. Gainera, jendiak ere ez daka gauza berrixak probatzeko joera haundirik, "sota, caballo, rey" gera horretan ere.

- Oraingo lana nahiko mekanikoa da, ez?

- Bai, oso. Gaur egun 100 gaixo inguru daude eta bakoitzaren araberako menua preparatu bihar dou. Dietistia dao eta berak markatzen dau. Ordenadore batian jasotzen dogu egun bakoitzian zer zeinentzat preparatu bihar dan.

- Modan omen dago hostalaritza ikastea.

- Modan edo... Pasatzen dana da, sukaldari moduan lana badaola. Rotazio asko dao eta lana topatzia erretza da, Madrilen batez ere. Baina lan asko ein bihar da, ordu asko sartu bihar dia. Hori bai, dirua ere ondo irabaz-



"Madrilen hilero 100.000 pta. jaso laike propinatan. Hemen propinia baino, limosnia ematen da"

ten da, propinekin batez ere.

- Propinekin?

- Bai, ohixura haundixa dao, ez da hemen bezela. Madrilen, 1.000 pta.ko propinia askok lagatzen dabe. Hilero, 40.000 pta. jasotzen dia propinatan. Kamarero batzuk, oinarritzko soldataz gain, holako trato bat eixen dabe jefiekin propina guztixakin eurak geratzeko, hilero 100.000 pta. eskuratzen dabe propinatan, gutxi gora-behera.

- Ez du zerikusirik Eus-

kal Herriarekin.

- Bat ere ez. Hemen lagatzen bada ere, bost duro edo.. Hori ez da propinia, hori limosnia da.

- Euskaldunon sukaldaritzak oso fama ona du Madrilen, ez?

- Bai, bai sukaldaritzak bai eta gure izakerak ere. Nere jefe batek esaten zaban Madrilen bi jende tipo zauala, euskaldunak eta euskaldunak izan nahi dabenak. Admirau etxen gaitxue, gure bizitzeko eria, deportistak... Jendiari hemengo klimia ere gus-

tau eixen jako, eurixa... Hona etortzen diazenian andria konpretara jun eta gizonak, frontoian pelota partidua ikusi, txikiteau... Gustura ibiltzen dia.

- Zuenean nork kozinatzen du?

- Nik ez behintzat! Etxian ahal dan gitxien.

- Menu perfektua?

- Neretzat? Ogibitxar-tekuak. Kozineruak oso gaizki jaten dou, dana arrapataka eta gaizki.

- Profesionalki nahi zenuena lortu al duzu?

- Sukaldari batek hasieran bere jatetxia jartzia nahi izaten dau, nik ere lehen. Baina oin ez dot holakorik nahi. Madrilen egon nitzanian, ez nitzan familixiakin apenas egoten. Nere alaba ibiltzen hasi zanian ez naban ikusi... Oin behintzat, trankil bizi naiz eta egun gehixo dakat libre, ez naiz lanerako bakarrik bizi. Eta hori asko baloratzen da.

- Argiñano ala Subijana?

- Subijana, dudaripe. Argiñano pailazo bat da.

- Ordainduko al zenuke 10.000 pta. Akelarren jateagatik?

- Sarri ez, baina inoiz gustua eixiarren bai. Gainera, disfrutatziatz gain, asko ikasten da.

Apraiz etxea edo baserria

- Errekaren ezker aldean aurkitzen da. Oinplano laukizuzeneko eraikina da. Barrutik etxebizitza eta ikuiluaren artean banatuta dago, bien artean altuera ezberdina dagoelarik.
- Etxebizitzak beheko solairua, lehenengoa eta ganbara ditu. Ikuiluak, aldiz, solairu bat gutxiago du, behekoa eta lehenengoa, hemen mandioa hedatzen delarik.
- Eskantzuak, atek eta gezileihoak harlanduz eraikiak dauden arren, ipar aldeko horma osoa eta beste fatxadetako beheko aldeak harlangaitzez eginak daude eta goiko alde zarpeatua eta zuritua dago.
- Ipar aldeko fatxadak bi baogune besterik ez ditu, oinak harlanduz eginak dituen ate dinteldua eta gezi leiho ohi bat, honen ezker alde ere harlanduz eraikia. Ate eta leiho hauek duela zenbait urte aldatu egin ziren eta hego aldean dagoen bezalako arku zorrotza kendu egin zen Eibarko Apalategi baserrira eramateko. Gezileihoak,

berriz, eskuin aldetik zabaldu zen. Bestalde, atearen eskuin aldean hiru zimentazio ezberdin ikus daitezke.

- Hego aldeko fatxadak, egungo fatxada nagusiak zortzi baogune ditu. Beheko solairuan leiho bat eta bi dobela haundiz eraikitako sarrerako arku zorrotza (Bizkai arkuak) daude. Arkuaren atezangoak kararrizko harlanduzkoak dira.
- Inpostaren pareko harlanduetan 1741eko data eta bi gurutze txiki ditu grabatuak, bietako bat orain bizi direnek duela urte batzuegina. 1763. urtea hego aldeko lehen solairuko habe baten ageri da.
- Lehen solairuan hiru leiho eta erdian balkoia daude. Azken berrikuntza-lanetan balkoia haunditu eta honen zoladurako harlauza kendu egin zen. Bigarren solairuan, ganbaran, bi leiho txiki daude. Fatxada honetan baita ere, erdi puntuko forman landutako harlanadu bat aurkitu zen.

PELLO ARRIETA



Josefa Arrillaga Gabilondo (1903-1986)



- 1903ko martxoaren 4an jaio zen San Pedroko Kortaso baserrian.
- Hamabi anai-arreben artetik bosgarrena zen Josefa.
- Ama Madrilera inude joan zenean, Josefak, oso gazte zela, anai-arrebez arduratu behar izan zuen. Lau anaia Arjentinara joan ziren rantxero.
- 18 urterekin ezkondu zen San Pedro baserrira; gaur egun San Pedroko taberna dena, 1954an irekia. Sukaldari ona zen eta ezagunak ziren haren tripakiak eta lapikokoak.
- Lau seme-alaba izan zituen eta gorabehera ugari bere bizitzan zehar. Baserri munduan murgilduta bizi izatetik, argindarrik, ur korronterik, telefonorik eta bestelakorik gabe, errepidea ezagutu zuen bai eta gaur egungo abantaila guztiak ere bere etxe propioan.
- Baserriko lanez gain, San Pedroko elizako serora izan zen. Eliza txukun edukitzeaz arduratzen zen, inolako diru saririk jaso gabe.
- 1986ko uztailaren 29an hil zen.

**OIERKI IGOGAILUAK**
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
☎ (943) 11 35 15 ● 📞 ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

**ZERAMIKAK**
Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11
Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behe
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

MOTZAK

18 aizkolari Kandido Txurrukaren omenez

Hil honen 19an, igandea, iaz hil zen Kandido Txurruka aizkolariari omenaldia egingo zaio Kalamua Elkarteak, Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioak eta DEBEMENek antolatuta. Aparteko herri kirolen jaialdian Euskal Herriak eman dituen aizkolari onenak bilduko dira, bai eta herriko trontzailariak, harrijasotzaileak, bertsolariak eta trikitilariak ere. Kandido zena gogoratuz, 18 aizkolari, tartean Astibia, Mendizabal, Aierbe, Arria II, Arria III, Agite, Arregi, Etxebeste, Erasun, Mugerza, Elorriaga, Ugarteburu, Arrospide, Olasagasti, Peñagarikano, Mindegia, Nazabal eta Larretxea. Trontzalariak lau izango dira: Florentino Larrañaga "Agarre-Txiki", Jose Mari Egaña "Mintxeta", Pedro Txurruka "Deustu" eta J. M. Egaña "Illunpe" eta, "Zelai" eta "Egi" harrijasotzaileak. Jaialdia alaitze aldera Meabe, Ziarda, Mañukorta eta Azpillaga bertsolariak eta Zabaleta eta Iker trikitilariak arituko dira. Antolakuntzan Ikastolen Federazioak, Kilometroen batzordeak, Udaletxeko 650. urteurreneko batzordeak eta Aldundiak lagundu dute. Jaialdia arratsaldeko 6etan hasiko da Olaizaga kiroldegian. Sarreraren zenbatekoa 500 pta.koa izango da.



Andoni Rementeria

"Lesiuengatik laga naban saskibaloia"

■ **Azkenean badugu saskibaloit taldea.** - Oin dala bi urte hasi ginan 15 bat lagun bilerak eitxen. Lelengo urtian ekipua atera zan eta hurrengo urtian klub bezela sortu ginan. Udaletxiak eta Txankakuak dirua eman eta hola hasi ginan.


■ **Kluba ere eratu duzue.** - Egoitza Kiroldegixan daukagu eta soziuak eitxeko 500 pta.ko txartel batzuk atera ditzugu. Gero urte bukeran afari bat zozketatuko dogu bazkidiaren artian.

■ **Liga hasieran markagailua beti zuen kontra.** - Bai, lehenengo urtian normala da. Baina azken aldian asko hobetu dou.

■ **Hobera egite horretan zerk izan du eragina?** - Gehixenbat entrenatziak. Fisikoki asko meyorau dou eta telebisian partiduak ikustiak ere eitxen dau. Gainera, datorren urtian jokalaria gehixao hasten badiaz entrenadoria entrenatzera bakarrik dedikauko da.

■ **Nola ikusten duzu saskibaloia herrian?** - Partiduetara juten dan jendia ikusi besterik ez dao. Saskibaloian ez dao afiziorik, umien artian kalidadia badao baina ez da kontinuidade bat ikusten.

■ **Altura handia behar delako agian?** - Altua izatia inportantia da baina gauzia gogua euki-tzia



da.

■ **Oso gazte Madrileko ekipobatera joan zinen?** - Hasieran, 14 urtekin Donostiara eta 15ekin Madridera jun nitzan. Anaixak esan zian ia nahi naban jutia eta dudarik ez naban euki. Lelengo urtia gogorra izan zan. Bi urte Estudiantes-en egon nitzan, kadetietan eta gero urtebete Villalban, jubeniletan.

■ **Zer dela-eta utzi zenuen?**

- Lelengo urtian ondo ibili nitzan baina gero lesiuekin hasi nitzan, eta azkenian lagatzia erabaki naban. Pena piska bat badakat baina oin ere lesio bat dakat belaunian eta seguruen datorren urtian ez dot jarraituko sakibaloitaldian.

■ **Altuegia sentitu izan zara sekula?** - Ez. Kanpora juten naizenian eta taberna batian sartu, jendiak begirau eitxen dia, igual hori da txarrena.

■ **Makina bat kokorreko hartutakoa izango zara.**

- Bai, etxian hartu diot trukua baina toki berrietan... Lagunekin ere beti makurtzen naiz, eta ate batetik sartzerakuan ere bai.

• Adina: 22
 • Altuera? 2,03
 • Eta pisua? 105
 • Gutxiago ala gehiago neurtzekotan, zenbat? Gehixo. 2,10.



II. URTEURRENA

1994ko maiatzaren 18an hil zen JOSE ANTONIO GOROSTIZA OTAEGI "WATSON" en oroimenez urtemeza izango da larunbatean, maiatzak 18, arratsaldeko 7etan Parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik mila esker.



PLATER TIRAKETA TXAPELKETA

Javier Uzuriaga berriz txapeldun

La Unión Ehiza eta Arrantza elkarteak herritarrentzat bakarririk antolatutako plater tiraketa txapelketako kategoría absolutuan Javier Uzuriagak irabazi zuen, iaz bezala. Plater tiraketan behintzat, arerio handirik ez duela erakutsi zuen San Migeleko tiratzaileak. Uzuriagak 66 plater apurtu zituen denera. Honen atzetik, Jose Luis Azpiri sailkatu zen, 57 platerekin. Txapelketaren azken tiraldia joan den zapatuan izan zen. Hiru egunetan, apirilaren 20an lehenengoa, 27an bigarrena eta azkena maiatzaren 4an izan ziren. Aurten beste urte batzuetan baino lagun gutxiagok hartu du parte. Hasierako bi saioetan tiratzen jardun zuten askok gainera, ez zuen azken tiraldian parte hartu, hortaz, txapelketatik kanpo geratu ziren.

Ezkerretik hasita Luis Mari Kortaberria, Jabier Uzuriaga, Iñaki Manzósidor eta elkarteko presidentea.



AZKEN SAILKAPENA

Kategoria absolutua

- 1- Javier Uzuriaga (66 plater)
- 2- J. L. Azpiri (57 p.)

Bigarren kategoría:

Ez zen saririk eman

Hirugarren kategoría

- 1- Luis M. Kortaberria (61 p.)
- 2- J. I. Atorrasagasti (57 p.)
- 3- O. Vilarchao (51 p.)

Laugarren kategoría:

- 1- I. Mancisidor (54 p.)
- 2- J. M. De la Cruz (53 p.)
- 3- Esteban Villar (49 p.)

MOTZAK

Arrantza txapelketa Beduako errekan

La Unión ehiza eta arrantza elkarteak arrantza txapelketa antolatu du Zumaiako Beduako errekan. Maiatzaren 12an, igandea, goizeko 9,30etatik eguerdiko 1,30ak arte elkartekide eta herritarrek arrantzan jarduteko aukera izango dute. Arrantzan ibiliko diren guztiek Federazioaren Arautegia errespetatu beharko dute eta derrigorrezkoa izango da arrantza baimenaren jabe izatea.

Belagoatik Selva de Oza-ra irteera

Morkaikok bi eguneko mendi irteera antolatu du hilaren 18 eta 19an. Belagoatik Selva de Ozara trabesia egingo da; larunbatean Txamantxoia mendia igo eta igandean Atxeritoko tontorrera iritsi ondoren Selva de Ozara jaitea da plana. Izena lehen bait lehen ematea komeni da. Bestalde, Tolosako Aralarko Adiskideak taldeak 14 orduko ibilaldia antolatu du hilaren 26an. Izena Morkaikon eman (74 02 97).

Futbola

Elgoibar 1 - S. D. Eibar 2 (**1. erreg.**)
 Elgoibar 3 - S. Herrera 2 (**Infantilak**)
 Azkoitia 1 - Elgoibar 4 (**Neskak**)
 Ondarroa 0 - **Haundi** 0
 Ordizia 2 - Elgoibar 2 (**Jubenilak**)
 Almen 1- Elgoibar 1 (**Kadeteak**)

Saskibaloia

Txankakua S. T. 49 - S. T. Lizeoa 47

Eskubaloia

Amaña 12 - Pagoaga E. 25 (**Kad. neskak**)
 Urola 9 - Elgoibar 27 (**Kad. mutilak**)

Pilota

Herrien Arteko Eskuzko Txapelketa

Kadeteak:

Leon/Arrillaga (Elgoibar) 18 -
 Lertxundi/Altuna (Amezketak) 5

Jubenilak:

Balzola/Gerrika (Elgoibar) 9 -
 Saralegi/Goitia (Amezketak) 22

Seniorrak:

Ansola/Lazarobaster 6 -
 Haritz/Artola 22 (Amezketak)

Deba Arroko Pilota Txapelketa

Koarkortuak:

Orbea/Arrillaga (Lagunak) 5 -
 Antxia II/Hernández (Elgeta) 18

Gazteak:

Garate/Balzola (Lagunak) 6 -
 Ubera II/Peñalver (Elgeta) 22

Nagusiak:

Ansola/Lasagabaster (Lagunak) 9 -
 Aranzeta/Elorriaga (Elgeta) 22

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 11

12,00 Elgoibar - Urola (**Kadeteak**)

17,00 **Haundi** - Santurtzi

Igandea, 12

10,00 Gazteak - Ostadar (**2. erreg.**)

12,00 S. D. Eibar - Kilimon (**1. erreg.**)

17,00 Elgoibar - Hondarribi (**Jubenilak**)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 11

17,00 Elgoibar - Amaña (**Kad. neskak**)

Igandea, 12

12,00 Elgoibar - Arrate (**Kad. mutilak**)

MOTZAK


Alebin eta infantilen judo txapelketa

Ibai Klubeko judokak Legazpiko judo txapelketan izan ziren maiatzaren lehen eta oraingoan ere, hainbat dominarekin itzuli ziren etxera. Urrezkoak hiru izan ziren; Aitor Gonzalezek, Mikel Muñozek eta Aitor Mugerzak irabazi zituzten. Zilarrezko domina honako hauek eskuratu zuten: Maialen Mora, Zuriñe Polo, Jon Ander Pascual, Alberto Fernández eta Zuhaitz Martinezek. Azkenik, brontzezko 10 domina eskuratu zituztenak: Borja Ortiz, Josu Tellabide, Unai Fernández, Ekain Jiménez, Javi Muñoz, Ana Estévez, Miren Mugerza, Maria Idiakez, Joana Soto eta Esther Idiakez.

• Kirol flashak • Kirol flashak • Kirol flashak •

Ibai Klubeko

ikasle den Francisco Javier Blanco eibartarrak Taekwondoko gerriko beltza lortu du. Ibai Klubeko norbaitek eskuratzen duen lehen gerriko beltza da kirol honetan. Azterketa teknikoa Getxoko Faturako Kiroldegian egin zuen, txapelketako froga gogorra gainditu ondoren. Francisco Blancok bi urte daramatza Ibai Klubean eta batzuetan Josune Altuna irakaslearen ordezkotzat lan egiten ditu. Hilaren 19an Gipuzkoako Taekwondoko Txapelketa antolatuko da lehenengo aldiz, eta Ibai Klubeko 4 ikaslek hartuko dute parte.



EIBARKO ARMERIA ESKOLA

1996/97 IKASTURTERAKO ESKAINTZA



IEE 1 (REM 1)

- Batxilergo Orokorra

IEE 2 (BTI)

- Batxilergo Tekniko-Industrialia

LH 2 (FP 2)

- Erreminta Makina Mikromekanika
- Delineaketa industrialia
- Kalitate kontrola
- Elektrizitatea (automatismoak)

MODULUAK (III. Mailakoak)

- Sistema Automatiko programagarriak (elektronika)
- Makina eta sistema automatizatuen mantenua

- Praktiak lantegietan
- Lan Mundurako edo unibertsitaterako prestakuntza egokia
- Gaueko ikastaroak langileentzako

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- Proiektu mekanikoen garapena

AURREINSKRIPZIOAK:

Maiatzaren 2tik 17ra / ORDUTEGIA: 9,00 - 12,00
TEL. 74 32 44

Besarka gaitezen foleville!

Orain antzerki taldearen “Besarka gaitetzen foleville!” izeneko lana ikusteko aukera izango da datorren ostiralean, hilak 17, Herriko Antzokian. ETBko Goenkale teleaileko Iñake Irastorza eta Niko Lizeaga aktoreek hartzen dute parte besteak beste, eta Enrique Díaz de Rada da zuzendaria.

Eugne Labiche (1815-1888) idazle frantsesaren “vodevil”ean oinarritutako antzezlan da. *Orain* taldeak XIX. mendeko antzezlan hau gaurkotu egin du, 60 eta 70 hamarkadetakoa musika ezaguna erabiliaz eta bi dantza saioak eraberrituz. Bada bertsotan iragaten den pasarterik ere. Komedia burges honetan pertsonaia guztiek gezurrak besterik ez dituzte esa-

ten eta azkenean gezur horiek pertsonaiak irentsi egiten dituzte, egoera jasanezina bihurtu arte.

Orain antzerki taldea 1968an jaio zen talde independente bezala eta gaurdaino 22 obra klasiko antzeztu dituzte gaztelaniaz zein euskaraz, bai eta haurrentzako beste zortzi obra ere.



Ikastolako BBBko lehen mailako ikasle hauek, Iker Zuriarrain, Jon Zubiaurre, Gonzalo Salas eta Ander Ansuategik, ONCE elkarteak urtero antolatzen duen eskolarteko lehiaketan Gipuzkoako txapeldun izan dira C kategorian. Aurtengo lehiaketan antzerki gidoi bat prestatu behar zuten partehartzaileek. Ikastolako ikasleek euskarazko gidioa egin zuten, mutila eta neska itsu baten arteko maitasun harremana modu berezian azalduz. Aipagarria da euskaraz egindako lan bat saritzen den lehen aldia dela. Gipuzkoako irabazleak izan ondoren, Euskal Herri mailan izango den lehiaketan hartuko dute parte, eta sailkatuz gero, Estatu mailakora pasatuko dira. Zorte on!

Letras Galegas jaia datorren astean

Elgoibarko Galiza Etxeak Semana Das Letras galegas deritzon jaia ospatzen dihardu. Jaien hasiera maiatzaren 17rako iragarrita bada ere, asteburuan hanbat ekintza egingo dira jai giroan murgiltzen hasteko. Larunbatean, hilak 11, galiziarren arteko bazkaria izango da elkarteetan eta arratsaldeko 4etan Chaves jokoak Galiza plazan. Igandean, hilak 12, futbito partitua jokatu dute ezkondu eta ezkongabeek eguerdiko 12etan. Ekitaldi garrantzitsuenak, berriz, datorren asteburuan burutuko dira. Hiru orkestra ezberdinekin beste horrenbeste berbena izango dira: Fabula, Passarela eta Duo Plaentxi. Ohi denez, Galiziako jakiak eta Ribeiro ardoa dastatzeko aukera izango da eta ez dira falta izango Galiziako folklorearen erakusgarri diren gaita eta dantzak.

Alberto Schommer-en kaskografiak Elgoibarren

Alberto Schommer euskal argazkilaria ezagunaren kaskografia bilduma osoa lehen aldiz Elgoibarren ikusteko aukera izango dugu hila-ren 17tik ekainaren 15era bitartean. Ongarri Argazki Taldeak Caja Laboral-Euskadiko Kutxaren laguntzaz antolatutako erakusketa honetan ikus ahal izango den kaskografia bilduma Schommer-en proiekturik handienetarikoa da. Neurri handiko argazkiak manipulatatu eta berriro osatzen ditu Schommer-ek, zenbait zona azpimarratuz, zimurtuz edo bolumena emanez, zenbait kasutan argazki itxura baino eskultura ematen dutelarik. Alberto Schommer-en lana mundu osoan da ezaguna. Artikulu eta liburu ugari argitaratu ditu, tartean Donostiari buruzko “Azul” liburu ezaguna. Mundu osoan egin ditu erakusketak eta beste meritu askoren artean, San Fernando Arte Ede-
ren akademiako kide da.

Bost urte Gaztetxe gabe

Bost urte pasa dira Gaztetxea bota zutenetik. Denbora luze pasatu da ordutik baina oraindik ere asko dira lokal baten beharra aldarrikatzen duten gazteak. Horien artean dago Gazte Asanblada. Izan ere, Madalan kokatzen zen Gaztetxearen eraiketa gogorarazi eta salatzeke, atzo hasita eta larunbata bitartean, zenbait ekintza antolatu ditu.

Atzo, osteguna, manifestazio batekin eman zitzaion hasiera ekitaldiari. Gauean, berriz, Lanbroa tabernan pelikula baten emanaldia izan zen, "Tierra y libertad". Gaur, ostirala, arratsaldeko 7etan akanpada bati emango zaio hasiera Madalako parkean. Iaz bezala, hainbat gaztek kanping-a eraman, bertan montatu eta astebukaera hantxe pasako du, ekintza ezberdinak zuzenaz bizitzeko asmoz. Gauean, 10ak aldera, hitzaldi eztabaida bat egongo da, "Gaztetxeen egoera eta etorkizuna" gaia oinarritzat hartuz.

Zapatua izango da azken eguna. Eraisketaren 5. urtemuga salatzeke jaialdia antolatu dute Gazte Asanbladakoek. Arratsaldeko 5etatik hasita eta 7ak bitartean, Madalako parkean trikitalariak, malabarak, hankapaluak, futbolina, ping-pong-a eta bestelakoak izango dira aukeran. Eta gauean, horrelako jaialdi guztietan bezala, kontzertu batek emango dio amaiera aurtengo ekitaldiei.

EgiTaRaua

Maiatzak 10, ostirala

19,00: Akanpada Madalan

22,00: Hitzaldi-etzabaida

Madalan, "Gaztetxeen egoera eta etorkizuna"

Maiatzak 11, larunbata

17,00: Trikitalariak, malabarak,

hankapaloak... Madalan

Gauean, kontzertua Madalan

1991. urtea. Gaztetxea bota aurretiko uneak tentsioz beterikoak izan ziren.



Gaztetxea bota ondorengo erretratuak.

Bost urte eta gero...

Bost urte pasa dira Udaletxe-ko jauntxo "demokratek" gazte askoren ametsak lurrera bota zituztenetik. Elkarrizketaren bidez konpondu nahi izan ez zutena bortxa erabiliz desagertarazi zuten. Horiei bost axola zaie Gaztetxeak iraun zituen kasik bost urte horietan zehar bertan ehundaka ekintza sozial eta kultural antolatu izanak. Gazteok pairatzen genituen drogomenpekotasun, langabezia etab... bezalako arazoei beraiek beste bat gehitu zioten: gazteok gure poz eta nekeei buruz libreki eztabaidatu eta nahi genituen ekintzak antolatzeko geneukan leku bakarraren desagertzea.

Ordutik hona denbora asko pasa da eta kontu hau konpontzeko saiakerarik ez da falta izan gure partetik. Baina beti Udaletxearen hertsitasunarekin egin dugu topo. Ez ditugu ahaztuko marginazioa, isunak, ekintzak burutzeko debekuak eta bortxa poliziala eta honen ondorio diren atxilotu, jipoitu, zauritu eta irainduak.

Herri honetako jauntxoek zor handia dute gazte-ekiko, osasun egoeratik hasita kultur ikuspegi-raino gure egoera okertu baitute.

Eta oraindik tinko jarraitzen dute, atek hertsita, haien harropuzkeria puztuta, nekatuta etsiko dugun eta isilduko garen zain, gero, "ikusten, dena ongi dabil" esateko.

Baina ez dute lortuko, gureari ekingo diogu. Duintasunagatik eta arrazoia badaukagulako.

Gazte Asanblada



Garajeak

- ❖ Marradun garajea alokatzen da Urasandin.
☎ 74 31 07
- ❖ Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. zenbakian.
☎ 74 13 77
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut Santa Ana kalean.
☎ 74 21 21
- ❖ Garaje ERDI-ITXI bat saltzen dut pista beltzean.
☎ 74 00 39
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 30 81
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut P. M. Urruzuno 12-14an.
☎ 74 22 00
gaueko 9etatik aurrera

Salerosketak

- ❖ MOUNTAIN BIKE bizikleta berria saltzen dut.
☎ 74 30 30
- ❖ JIMSON Elite sport 49cc motorra salgai. Oso prezio onean.
☎ 19 21 40
- ❖ MENDIKO MOTORRA saltzen dut. 49cc, konponketa txiki bat behar du. 20.000 pta.
☎ 19 21 07
(gaueko 9etatik aurrera)
- ❖ PIANO BAT saltzen dut. Prezio interesgarria.
☎ 74 24 51 Maite
- ❖ BOXER TXAKURKUMEAK saltzen ditut.
☎ 74 28 68 gauez

- ❖ ZORIONAK MAITE SOLASi gaur, hilak 10, 13 urte betetzen dituelako, berak badakien lagunenean partez.
- ❖ Maiatzaren 11n 4 urte bete behar dituen ALAITZi ZORIONAK bere etxeko guztien partez.
- ❖ Maiatzaren 12an 11 urte betetzen dituen JOANA ASTIGARRAGari ZORIONAK laugarren mailako adiskideen partez.
- ❖ ZORIONAK LOLI SANCHEZi bere seme Ekaitzen partez.
- ❖ ZORIONAK MARI KRUZ andereñoari 3. mailako guztien partez. Zorion bero-beroak.
- ❖ Maiatzaren 10ean 19 urte betetzen dituen JUDITHi ZORIONAK bere ahizparen partez.
- ❖ ZORIONAK ALEJANDRO GONZALEZ RUEDari maiatzaren 3an 96 urte bete zituelako. Segi gogor. Zure familiaren partez.
- ❖ ZORIONAK AITA gaur urte mordoska egiten dituzulako. Zure alaba Eire. ondo pasa ezazu.
- ❖ ZORIONAK INIGO ARIZAGari, hilaren 9an 13 urte bete zituelako, Miren, Idoia, Bikentzi, Koldo eta Aitorren partez.
- ❖ ZORIONAK maiatzaren 12an 11 urte egingo dituen JOANA ASTIGARRAGari bere ama eta anai-arreben partez.
- ❖ ZORIONAK maiatzaren 15ean 17 urte betetzen dituen AINARA SANCHEZi familia osoaren partez. Era berean zorionak bere aitonari bere santu egunean.
- ❖ ZORIONAK EIDER PEREZi Maiatzaren 13an 8 urte betetzen dituelako bere lagunenean partez.
- ❖ ZORIONAK ANTTONI, bere 9 urteak eta jaunartzeagatik. Uxue.
- ❖ ZORIONAK LARA URAINI maiatzaren 15ean 8 urte beteko dituelako. Musu handi bat zure ahizpa Ane eta gurasoen partez.

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak.....461111
 Txanda hartzeko.....743354
 Planning-a742950
 Alkoholiko Anonimoak..740385
 D.Y.A (anbulantzia) ..464622
 Gurutze Gorria.....743864
 Mendaroko Ospitalea756264
 Drogomenpekotasun Z.741008
 Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
 PESA (Eibar).....102131
 Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
 Udal Kirol Patronatua744415
 Kultura Zerbitzua742158
 Mendaroko Udala756100
 Ongizate zerbitzua...743736
 Udaletxea741050
 Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
 Elgoibarko Izarra.....741626
 Kontsumo Bulegoa ...743088
 Liburutegia743525
 Musika Eskola742145
 Mintxeta744315
 Parrokia740842
 Polikiroldegia741361
 Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
 Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
 Herri Eskola74 08 79
 I.M.H.74 41 32
 Institutua74 02 67
 Ikastola74 44 41
 L.H.I.....74 44 80
 Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
 El Diario Vasco74 40 73
 El Mundo74 27 59
 El Correo Español...74 10 82
 Egin.....10 84 21
 Zazpiki irratia74 34 74

Lana

- ❖ NAGUSIAK ZAINDU eta konpaina egiteko prest nago.
☎ 74 33 19 Maria
- ❖ HAURRAK edo PERTSONA NAGUSIAK zainduko nituzke. Esperientzia daukat.
☎ 74 20 24 M. Angeles
- ❖ GONAK josten ditut neurritara. Zaharra ekarri eta berdin-berdina egingo dizut.
☎ 74 21 40 Konsuelo

Etxebizitzak

- ❖ ERROSARIO 28an pisu bat saltzen dut.
☎ 74 13 17
- ❖ ETXE BAT ALOKATU nahi nuke Elgoibar edo Deban.
☎ 74 05 62
- ❖ Errosario kalean PISU BAT ALOKATZEN DA.
☎ 74 09 74
- ❖ BUNGALOW bat alokatzen dut urte osorako, abuztua izan ezik, SANTA POLAN.
☎ 74 12 13 Carmen
- ❖ PISU BAT SALTZEN dut. Prezio interesgarria.
☎ 74 24 51

Partikularrak

- ❖ OHOkO Klase partikularrak ematen ditut Mendaron.
☎ 75 51 04 Ana (Arratsaldez)

Agurrak

- ❖ ZORIONAK C. D. ELGOIBARKO INFANTILen taldeari aurreko igandeko partidua irabazi eta jaitsiera postuetatik atera delako liga bukatzeaz dagoenean.
- ❖ Maiatzaren 12an urteak betetzen dituen JOANA ASTIGARRAGari superZORIONAK bere adiskideen partez. Ondo pasa ezazu.

Bestelakoak

- ❖ UMEEN TXALEKO bat galdu zait, jaspeatua.
☎ 74 35 91 Ana
- ❖ BOXER TXAKURRA ematen dut. 2,5 urte ditu eta emea da.
☎ 74 06 43
- ❖ BI BIZIKLETA dauzka emateko Caritasek.
☎ 74 15 09 / 74 12 57

10 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Nunca hables con extraños”

11 LARUNBATA

16,30 JAIALDIA IGERILEKUAN

Antolatzailea: Kiroldedia

19,30-22,15 ZINEA

“Nunca hables con extraños”

12 IGANDEA

16,30 ZINEA

“Vaya Santa Claus”

19,30-22,15 ZINEA

“Nunca hables con extraños”

13 ASTELEHENA

18,00 LABEKO ESMALTE IKASTAROA

Antolatzailea: Egur Arte Tailerra
Hilaren 31ra arte

19,30 HITZALDI NATURISTA

Hizlariak: Marisol Saez eta Eduardo García naturopata eta iridiologoak

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Kemen belardenda

22,15 ZINEA

“Nunca hables con extraños”

14 ASTEARTEA

19,30 HITZALDI NATURISTA

Hizlariak: Marisol Saez eta Eduardo García naturopata eta iridiologoak

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Kemen belardenda

22,00 ZINEA

“Nunca hables con extraños”

17 OSTIRALA

18,00 ALBERTO SCHOMMERen
KASKOGRAFIA ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean

Ekainaren 15era arte

Antolatzailea: Kilometroak 96

22,30 ANTZERKIA

Taldea: Orain

Antzezlanak: “Besarka gaitzen folleville!”

✓ Herriko Antzokian

Aste Antimilitarista

ASTEAZKENA, 15

19,00 HITZALDI-MAHAINGURUA

Gaia: Intsumisioa eta kode penal berria. Hizlariak: Iban Esnola abokatua, Lutxi Arregi intsumitu presoak, Udalerri intsumitu bateko alkatea eta sindikalista bat.

Moderatzailea: Anjel Ugarteburu
Kultur Etxean

OSTEGUNA, 16

22,15 ZINEA: “El inglés que subió una colina pero bajó una montaña”
Herriko Antzokian (200 pta.)

OSTIRALA, 17

17,00 HAURRENTZAKO
JOLASAK ETA MARRAZKIAK
Plaza Handian

ANTOLATZAILEA: Elgoibarko
Taldea Antimilitarista.

Semana das Letras Galegas

LARUNBATA, 11

14,00 Bazkaria

16,00 Chaves tiraldia Galiza Plazan

IGANDEA, 12

12,00 Futbito partidua ezkongabe eta ezkonduen artean

OSTIRALA, 17

19,00 Txafliu jaurtiketa jaien hasiera iragarritz.

Jarraian Fabula orkestaren jarduna.

22,30 Berbena Fabula eta Duo

Plaentxirekin. Queimada banatuko da.

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
11, larunbata:	Ormazabal	Escala
12, igandea:	Ormazabal	Escala
13, astelehena:	Etxeberria	Anduaga
14, asteartea:	Etxeberria	Anduaga
15, asteazkena:	Etxeberria	Anduaga
16, osteguna:	Etxeberria	Anduaga
17, ostirala:	Etxeberria	Zabaleta

OKINDEGIA:

12, igandea: DONA MERCEDES

ZineA

Nunca hables con extraños

Sarah Taylor doktoreak hiltzaile baten egoera mentala nolako den erabaki behar du: hilketak konszienteki ala burutik jota dagoelako egin zituen. Bapatean Toni Ramírezekin egingo du topo Sarah-k. Gazte misteriotsu eta seduktorea da eta elkar maitemintzen dira. Egun batean Sarah-ren katua hilda agertuko da.

El inglés que subió una colina pero bajó una montaña

Zuzendaria: C. Monger
Antzezleak: Hugh Grant, D. Martin, Tara Fitzgerald.

1917. urtean Lehen Mundu Gerratean, bi kartografo ingeles Galeseko Fynnon Garw herrira iristen dira. Herritarren gauzarik preziatuena den mendiaren altuera neurtzeko asmoz. Beronen tamaina neurtzerakoan “mendi” kalifikazioa izateko 5 cm. eskas falta zaizkiola ikusten dute. Gobernuak egiten duen mapatik ezabatuko dituzten mehatxua uxatzeko herritarrek lur mordoska bat gehituko diote tontorrari, ditxosozko 15 cm.ak eskuratzeko. Baina euriaren higadurak behera botako ditu herritarren nahiak.

ORAIN

Besarika gaitezen folleville!!



Maiatzaren 17an, ostirala
Herriko Antzokian, gaueko 10,30etan

Sarrera: 500 pta.
(300 pta. Gazte Txartelarekin)

ANTOLATZAILEA:
Elgoibarko Udala



Laguntzailea:
Eusko Jaurlaritzako Antzerki Sarea

